BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1309

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 20koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ebatzi egiten baita garapen lankidetzarako «Ignacio Ellacuria» sariaren 2012ko edizioa.

Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2012ko azaroaren 7ko Ebazpenaren bidez (2012-11-21eko EHAA, 225. zk.), 2012ko edizioari dagokionez, garapen lankidetzarako «Ignacio Ellacuria» sariaren deialdia egin zen.

Azaroaren 18ko 189/2008 Dekretuaren bitartez garapen lankidetzarako «Ignacio Ellacuria» saria sortu eta aratzen da (2008-11-28ko EHAA, 229. zk.). Bada, dekretu horretan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzeari buruzko ekainaren 19ko 5/2008 Legeko 11.2 artikuluan (2008-07-10eko EHAA, 131. zk.), eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudiaren (2010-04-09ko EHAA, 65. zk.), zehazki, martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaz onartutakoaren 11.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, eta azaroaren 18ko 189/2008 Dekretuaren 7. artikuluan aipatu Epaimahaiak, 2012-12-18an, egindako proposamena ikusirik eta 2012rako deialdiaren bosgarren oinarria kontuan harturik, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2012ko edizioari dagokionez, garapen lankidetzarako «Ignacio Ellacuria» saria «ax aequo» ematea, honako ekimen, erakunde eta pertsonei:

– «Red Vasca de Apoyo a la Unión Nacional de Mujeres Saharauis» ekimena, honako erakunde hauek sustatua: Arabako Asociación de Amigos y Amigas de la RASD; Asociación ATFAL-Getxo; Ermuko Asociación de Amigos y Amigas del Pueblo Saharaui; Basauri, Berriz, Bilbao. Ermua, Getxo eta Ondárroako udalak; Getxo, Ermua, Basauri eta Ondarroako Escuelas de Empoderamiento; Emakunde; Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearen; eta Euskal Fondoa- Lankidetzarako Tokiko Euskal Erakundeen Elkartea.

– Begoña Etayo Ereña andrea.

Garapenerako euskal lankidetzaren printzipioekiko koherentzian, gizakien garapenaren alde egindako ekarpen nabarmenagatik eta emakumeen eskubideen arloan txirotasunaren aurka egindako lanagatik ematen da saria.

Bigarrena.– Honako hauekin hornitzea aipatu saria, saritutako hautagai bakoitzeko: oroigarrizko arte-lan bat, eta zazpi mila seiehun eta berrogeita har euroko zenbateko gordina.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Laugarrena.– Ebazpen honetan ez da bukatzen administrazio-bidea, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio, hain justu ere ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik harako hilabeteko apearen barruan. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zenetik hiru hilabete igaro eta ebazpenik ez bada eman, ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekita egongo da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 20a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.